

B-200 KONTROLAGAILUEN INSTALAZIOA

Windows XPn kontrolagailua instalatzea


1. Konektatu USB wireless sarearen egokigailua, ordenagailu eramangarriaren edo PCaren USBra.
2. Windows-ek USB egokigailua detektatzen duenean, *Aurkitutako hardware berriaren laguntzailea*-ren elkarrizketa koadroa azaltzen da. Hautatu **Instalatu softwarea automatikoki (gomendatuta)** eta sartu kontrolagailuaren CD-ROMa CD-ROM unitatean eta sakatu **Hurrengoa** aurrera segitzeko.



3. Sakatu **Jarraitu dena den** instalatzen segitzeko.



4. Windows-ek softwarea instalatzen amaitu du. Sakatu **Amaitu**, instalazioa amaitzeko.
5. Sistema automatikoki hasiko da utilitatea instalatzen. Horretarako, joan CD-ROMeko erabiltzailearen eskuliburuko 4. atalera.




Windows 2000n kontrolagailua instalatzea

Konektatu USB egokigailua ordenagailu eramangarriaren edo PCaren USB atakan.


Windows 2000k PCMCIA txartela detektatzean, leiho bat azalduko da: *Hardware berri bat aurkitu da*. Sakatu **Hurrengoa** instalatzen hasteko.




Leiho batean instalatzeko zein metodo erabili nahi duzun galdetuko dizu. Sakatu **Bilatu kontrolagailu egoki bat nire gailuarentzat (gomendatuta)** eta sakatu **Hurrengoa** aurrera segitzeko.




4. Egiaztatu **CD-ROM unitatea** hautatuta dagoela eta sartu CDa unitate honetan; gero, sakatu **Hurrengoa** aurrera segitzeko.




5. Hurrengo leihoan bilaketaren emaitzak azalduko dira. Sakatu **Hurrengoa** instalatzen segitzeko.



6. Leiho hau azalduko da: Sakatu **Bai** segitzeko.




7. Windows-ek softwarea instalatzen amaitu du. Sakatu **Amaitu**, instalazioa amaitzeko.



8. Sistema automatikoki hasiko da utilitatea instalatzen. Ikusi CD-ROMeko erabiltzailearen eskuliburuko 4. atala.

Windows 98n kontrolagailua instalatzea

1. Konektatu USB egokigailua ordenagailu eramangarriaren edo PCaren USB atakan.
2. Windows 98k PCMCIA txartela detektatzean, leiho bat azalduko da: *Hardware berria gehitzeko laguntzailea*. Sakatu **Hurrengoa** instalatzen segitzeko.




3. Leiho batean instalatzeko zein metodo erabili nahi duzun galdetuko dizu. Sakatu **Bilatu zure gailuarentzako kontrolagailurik egokiena (gomendatuta)** eta sakatu **Hurrengoa** aurrera segitzeko.




4. Ziurtatu CD-ROM unitatea hautatuta dagoela. Sartu CDA unitate horretan eta sakatu **Hurrengoa** aurrera segitzeko.




5. Hurrengo leihoan bilaketaren emaitzak azalduko dira. Sakatu **Hurrengoa** instalatzen segitzeko.



6. Windows 98k fitxategiak disko gogorrean kopiatuko ditu. Hurrengo leihoan softwarearen instalazioa amaitu dela adieraziko du. Sakatu **Amaitu**, instalazioa amaitzeko.




7. Hurrengo leihoan ordenagailua berrabiaraztea eskatuko zaizu instalazioa amaitzeko. Sakatu **Bai** sistema berrabiarazi eta konfiguratu dadin.




Windows MEn kontrolagailua instalatzea

1. Konektatu USB egokigailua ordenagailu eramangarriaren edo PCaren USB atakan.
2. Windows MEk USB egokigailua detektatzean, leiho bat azalduko da: *Hardware berria gehitzeko laguntzailea*. Hautatu **Bilatu automatikoki kontrolagailurik egokiena (gomendatuta)** eta sartu kontrolagailuaren CD-ROMa CD-ROM unitatean eta sakatu **Hurrengoa** aurrera segitzeko.



3. Sistemak konfigurazio-fitxategiak aurkituko ditu eta fitxategiak disko gogorrean kopia zeko jarraibideei jarraituko die. Hurrengo leihoa softwarearen instalazioa bukatzean agertuko da. Sakatu **Amaitu**, instalazioa amaitzeko.



4. Hurrengo leihoan, ordenagailua berrabiaraztea eskatuko zaizu hardwarea konfiguratzeko amaitzeko. Sakatu **Bai** sistema berrabiarazi eta hardwarea konfiguratu dadin.

